



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko uztailaren 19a

97. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Iritzia (5. or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

**III.** Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (7. or.).

III.1. 2016ko aurrekontuaren betetzearen egoera (7. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta (7. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (8. or.).

III.5. 2016ko ekonomia- eta ondare-emaizten kontua (9. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendioak (10. or.).

IV.1 Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (10. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (12. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (13. or.).

IV.4. Langileak (14. or.).

IV.5. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (16. or.).

IV.6. Transferentzia arruntengatiko gastuak (17. or.).

IV.7. Inbertsioak (17. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (22. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (22. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta dago kontu hori, funtsean: aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera-orriak, aurrekontu-emaizta, diruzaintzako gerakina, balantzea eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txulapaingo Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Txulapaingo Udalak 31,51 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 13 kontzejuk osatutako udalerrri bat da; harelere, kontzeju horietatik hiru ikuspuntu administratibotik azkenduta daude. Azken urteetan biztanleak berreskuratu ditu; izan ere, 1981ra arte biztanleak etengabe galtzen joan zen, baina geroztik, biztanleak berreskuratzen joan da: 1981n, 415 biztanle zeuden; 2001ean, 494 biztanle, eta 2016an, azkenik, 560 biztanle.

Biztanle horiek udalerriko kontzejuetan banaturik daude, ondoko taulan adierazten den bezala—nabarmena da biztanleen ehuneko 17,4 Ollakarizketa kontzejuan bizi direla—:

Kontzejua	2016ko biztanleria
Aristregi (azkendutako kontzejua)	28
Beltzuntze (azkendutako kontzejua)	75
Beorburu	34
Gartziriain	33
Larraiotz	21
Markalain	51
Nabatz	33
Nuin	55
Ollakarizketa	98
Otsakar	32
Osinaga	29
Untzu	34
Usi (azkendutako kontzejua)	37
<b>Guztira</b>	<b>560</b>

Udalak ez du sortu erakunde autonomorik bere kudeaketarako, eta zenbateko aipagarri hauek zituen 2016ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	398.477	296.047	2

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: Uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen tratamendua eta eskualdeko garraioa.

b) Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Harrera eta Orientabide Sozialerako Programa, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Programa eta Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta, Haurren eta Familiaren Arreta Programa eta Babestutako Enplegu Soziala.

Mankomunitateen bidez ematen dituen zerbitzu guztiek honako gastu hau eragin diote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastua, 2016an
Iruñerriko Mankomunitatea	626
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	10.283
<b>Guztira</b>	<b>10.909</b>

Bestetik, Berriozarko Udalarekin hitzartu da Txulapaingo ikasleek parte hartu ahal ditzatela haurrentzako kirol- eta kultura-ikastaroetan. Horrek 3.600 euroko kostua eragin du 2016an. Orobat itun bat egin du Antsoaingo Udalarekin kirol-jarduerak egiteko.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Kontra- tuak	Hitzar- mena
Administrazio zerbitzu orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte zerbitzuak		X		
Etxez etxeko laguntza zerbitzua		X		
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean				X
Kirol jarduerak				X
Hirigintza			X	
Lege-aholkularitza			X	
Hiri hondakinak		X		
Udal eraikinen garbiketa eta mantentzea			X	
Liburutegia-ludoteka			X	
Diru-bilketa exekutiboa			X	

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, 2016ko ekitaldiko kontu orokorraren inguruko gure iritzia azaltzen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoerari nagusien laburpen bat ematen dugu. Azkenik, laugarrenean, zenbait ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Landa-lana 2018ko martxoan egin zuen enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten zuzendaritzaren pean. Halaber, Ganbera honen zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntza izan da.

Jarduketa honen emaitzak Txulapaingo Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Emandako epean, Txulapaingo Udaleko alkateak aurkeztu ditu alegazioak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Txulapaingo Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

## II. IRITZIA

Txulapaingo Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

### *Udalaren erantzukizuna*

Idazkari eta kontu-hartzailea da kontu orokorra egiteko eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar du hori non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze libre dauden kontuak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko ekainaren 30ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea, gure fiskalizazioan oinarrituta, 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarriko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontuetan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorraren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontuak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritzia funtsa izateko.

## II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

### *Iritziaren oinarria, salbuespenekin*

- Balantzearen aktiboan, ez dago jasota ibilgetuaren kontua, nahiz eta inbertsio-gastuak egin diren. Halaber, Udalak ez du bere jabetzako udal ondasunen inbentariarik.

### *Iritzia*

Gure iritzian, balantzean eragina duten "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako Udalaren kontu orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

### *Iritziaren oinarria, salbuespenekin*

- Udalak ez ditu bete egonkortasun- eta gastu-arauak, "Txulapaingo goi-horniduraren V. fasea" obra egitearen ondorioz. Ez ditu egin, ezta ere, aurrekontu-egonkortasunaren esparruan exigitzen diren txostenak, eta, azkenik, ez du aurkeztu hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informaziorik.

- Hasiera batean aurreikusitako zenbatekoa gainditu duten kontusailen exekuzioa baino lehen, ez dira egin araudian jasota dauden aldaketak.

- Jasota dago kontratua indarrean ez duten zerbitzuengatik ordainketak egin direla, 26.833 eurokoak; kopuru horrek ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunt guztien ehuneko 24 egiten du.

### *Iritzia*

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, 2016ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

**III UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira 2016ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

**III.1. 2016ko AURREKONTUAREN BETETZEAREN EGOERA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	118.121	0	118.121	117.300	99	116.640	99	660
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	126.055	0	126.055	112.823	90	106.743	95	6.080
4. Transferentzia arruntak	39.870	0	39.870	33.098	83	12.923	39	20.175
6. Inbertsio errealak	163.170	0	163.170	135.255	83	17.828	13	117.427
<b>Guztira</b>	<b>447.216</b>	<b>0</b>	<b>447.216</b>	<b>398.477</b>	<b>89</b>	<b>254.134</b>	<b>64</b>	<b>144.342</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Beteta-koa (%)	Kobran-tzak	Kobratu-takoa (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	92.500	0	92.500	90.855	98	87.185	96	3.670
2. Zeharkako zergak	18.000	0	18.000	7.527	42	6.119	81	1.408
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	5.600	0	5.600	10.346	185	9.339	90	1.007
4. Transferentzia arruntak	158.346	0	158.346	159.823	101	159.823	100	0
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	13.850	0	13.850	11.296	82	6.628	59	4.668
7. Kapital-transferentziak	16.700	0	16.700	16.200	97	16.200	100	0
9. Finantza-pasiboak	145.300	0	145.300	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>450.296</b>	<b>0</b>	<b>450.296</b>	<b>296.047</b>	<b>66</b>	<b>285.294</b>	<b>96</b>	<b>10.753</b>

**III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA**

Kontzeptua	2015eko ekitaldia (*)	2016ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	307.481	296.047
- Aitortutako betebeharrak	312.280	398.477
<b>Aurrekontu-emaizta</b>	<b>(4.799).</b>	<b>(102.430).</b>
<b>Doikuntzak</b>		
+ Finantzaketa-aren desbideratze negatiboak	-	-
<b>Aurrekontu-emaizta doituia</b>	<b>(4.799).</b>	<b>(102.430).</b>

(\*) Ikustatu gabeko ekitaldia

## III.3. DIRUZAINITZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015eko ekitaldia (*)	2016ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	16.133	46.462
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	23.716	10.753
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	52.569	53.691
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.607	34.018
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	(63.759).	(52.001).
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	42.522	161.856
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	27.757	144.342
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-	1.367
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	14.765	16.147
(+) Diruzaintzako funts likidoak	438.578	438.448
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>412.189</b>	<b>323.054</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	-	-
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>412.189</b>	<b>323.054</b>

(\*) Ikustatu gabeko ekitaldia

## III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

## Aktiboa

Deskribapena	2015(*)	2016
C Zirkulatazaila	518.470	536.910
7 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko zordunak	56.176	87.709
8 Aurrekontuko zordunak	23.716	10.753
9 Finantza-kontuak	438.578	438.448
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>518.470</b>	<b>536.910</b>

(\*) Ikustatu gabeko ekitaldia

## Pasiboa

Deskribapena	2015(*)	2016
A Funts berekiak	475.948	375.055
1 Ondarea eta erreserbak	474.747	358.385
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.201	16.670
D Epe laburreko hartzekodunak	42.522	161.855
6 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	14.766	17.513
7 Aurrekontuko hartzekodunak	27.756	144.342
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>518.470</b>	<b>536.910</b>

(\*) Ikustatu gabeko ekitaldia



## III.5. 2016ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZEN KONTUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015 <sup>(*)</sup>	2016	Hartzeko	2015 <sup>(*)</sup>	2016
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	122.572	117.300	70 Salmentak	15.391	10.346
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	132.310	112.823	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	19.467	11.296
67 Transferentzia arruntak	38.381	33.098	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuoak	66.013	59.659
			73 Errentaren gaineko zerga arruntak	39.017	38.643
			76 Transferentzia arruntak	154.343	159.823
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.610	16.626	77 Kapitalaren gaineko zergak	642	81
<b>Guztira</b>	<b>294.873</b>	<b>279.848</b>	<b>Guztira</b>	<b>294.873</b>	<b>279.848</b>

(\*) Auditatu gabeko ekitaldia

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015 <sup>(*)</sup>	2016	Deskribapena	2015 <sup>(*)</sup>	2016
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	409	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	1.610	16.626
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	1.201	16.670	84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	44
<b>Guztira</b>	<b>1.610</b>	<b>16.670</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.610</b>	<b>16.670</b>

(\*) Auditatu gabeko ekitaldia

#### IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren emaitza gisa, ondorio batzuk gehitu ditugu, bai eta txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jaso ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak. Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

##### IV.1 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako eta behin betiko aurrekontuak gastuen 447.216 euroko zenbatespenak eta diru-sarreraren 450.296 euroko aurreikuspenak jasotzen ditu.

Aitortutako betebeharrak 398.477 eurokoak izan dira eta ehuneko 89ko betetze-maila izan dute. Betetze txikiena izan duten gastu-kapituluak transferentzia arruntei eta inbertsioei dagozkienak dira, biek ere ehuneko 83ko betetzea izan baitute.

Aitortutako eskubideek 296.047 euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 66 da. Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila txikiaren arrazoia da ez dela hitzartu pasibo finantzarioen kapituluaren aurreikusitako mailegua, zeren eta diruzaintzako gerakinak finantzaketarako aukera eman baitu. Gainerako diru-sarrerak, zeharkako zergaren zergapetzearen jaitziera nabarmenarengatik ez bada, arrazoiz egokitu zaizkie behin betiko aurreikuspenei.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili den eta nola finantzatu den Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	29	Tributu bidezko diru-sarrerak	34
Bestelako gastu arruntak	37	Transferentziak	59
Inbertsio errealak	34	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	7
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 66 egiten dute eta inbertsio errealek, berriz, gainerakoa —ehuneko 34—. Diru-sarreretan, iturri nagusia transferentziei dagozkienak dira, ehuneko 59 baitira.

Ondoren, Udalaren 2016ko egoerari buruzko adierazle batzuk aurkezten ditugu, bai eta 2015eko adierazleekiko alderaketa ere:

	2015 (*)	2016	Aldea (%) 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	312.280	398.477	28
Aitortutako eskubideak, guztira	307.481	296.047	-4
Gastuen betetzea (%)	70	89	28
Diru-sarreraren betetzea (%)	68	66	-4
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	293.264	263.221	-10
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	293.264	263.221	-10
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	19.016	135.255	611
Finantza-eragiketetan egindako gastuak (8. eta 9. kapituluak)	-	-	-
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	294.873	279.847	-5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	108.667	100.725	-10
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	12.608	16.200	28
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	% 37	% 38	-5
Gastu arrunta biztanleko	523	469	-10
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	193	180	-10
Diru-laguntzen menpekotasuna (%)	% 54	% 59	10
Aurrezki gordina	1.609	16.626	933
Finantza-zama	-	-	-
Aurrezki garbia	1.609	16.626	933
Aurrekontu-emaiza doitua	-4.799	-102.430	2034
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-4.799	-102.430	2034
Diruzaintza-gerakina, guztira	412.189	323.054	-22
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	412.189	323.054	-22
Finantza-zamaren adierazlea (**)	Ez da aplikatzekoa	Ez da aplikatzekoa	-
Aurrezki gordinak diru-sarreran arruntetan egiten duen ehunekoa (**)	1	6	-
Zorpetze-ahalmena (%)	1	6	-
Zor bizia	-	-	-

(\*) Auditatu gabeko ekitaldia

(\*\*) Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak ratioak direla-eta ezarri dituen izen berriak

Aurrekontu-emaiza 102.430 euro negatibokoa da: ehuneko 2034 jaitsi dira 2015eko ekitaldiarekin alderatuta. Defizitaren arrazoia da 2016an goi-hornidurarako obra bat egin dela, 117.427 eurokoa. Arrazoi hori bera dela eta, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina nabarmen jaitsi da: 412.189 eurokoa izatetik 323.054 eurokoa izatera.

Aurrezki garbia, zeina 2016an 16.626 eurokoa izan baita, ehuneko 933 handitu da 2015eko ekitaldiarekin alderatuta, eta zorpetze-ahalmena ere ehuneko batetik ehuneko seira igo da.

Horrenbestez, amaierako laburpen gisa, Txulapaingo Udalaren 2016ko egoera finantzarioak honako ezaugarri hauek dauzka: zorrik ez du; gastu arruntak finantzatzeko gaitasun finantzario nahikoa badu, eta 323.054 euroko diruzaintzako gerakina badauka, zeinak hornidura-lanak finantzatzea ahalbidetu baitio.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak —hau da, Udalaren 2016ko gastu konputagarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak— ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrerara arrunten ehuneko 110a.
- Zuhurtasun finantzarioa toki entitateek egiten dituzten zorpetze-eragiketek bete beharreko baldintzei dagokie; izan ere, arriskua eta kostua gutxitu behar dituzte, lege ezarrita dauden baldintza batzuk betez.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Udalak ez du helburu horien betetzea aztertzen, eta ez da aurrekontu-egonkortasunaren esparruan aurreikusitako informazioa ematen.

Hala eta guztiz ere, 2016ko ekitaldian Udalaren egoerari buruzko zenbatespen bat egin dugu, printzipio horiei dagokienez. Horren arabera, honako ondorioak atera ditugu:

##### Aurrekontu-egonkortasunaren araua

Udalak 2016an arau hori urratu du, zeren eta 90.899 euro finantzatzeko beharra izan baitu, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-102.430
Doikuntzak	+11.531
Finantzaketa-beharrak	90.899

##### Gastuaren araua

2016ko ekitaldiko gastu konputagarria 2015eko ekitaldikoa baino 80.425 euro handiagoa da —ehuneko 1,8tik gorakoa—; horrenbestez, urratu egiten da arau hori.

Kontzeptua	2015	2016
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	312.280	398.477
Funts finalistekin finantzatzutako gastuengatik doikuntzak	-6.354	-6.317
Oinarri-urtearen gastu konputagarria	318.634	404.794
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
2016rako gehieneko gastu konputagarria	324.369	

Aztertutako bi arauak bete ez diren arren, Udalak ez ditu exigitutako zuzentze-neurriak hartu. Aurrekoa gorabehera, adierazi beharra dago egonkortasun-arauak ez betetzearen arrazoia diruzaintzako gerakinarekin finantzatu den uraren goi-hornidurako obrak izan direla.

### **Finantza-iraunkortasunaren araua**

Udalak 2016ko abenduaren 31n ez du zor bizirik.

### **Hornitzaileei ordaintzeko epea**

Udalak ez du tresna informatikorik bere baliabideekin ordainketaren batez besteko epeak kalkulatzeko, LOEPSF legean ezarritako moduan; hori dela eta, ezin da zehaztu araudi indardunak merkataritza-eragiketarako ezarri duen ordainketarako gehieneko epea (30 egun natural) bete den.

#### **IV.3. ALDERDI OROKORRAK**

- 2016ko ekitaldiko aurrekontua Udalaren 2016ko martxoaren 18ko Osoko Bilkuran onetsi zen. Behin jendaurrean jartzeko izapidea eginda, 2016ko apirilaren 11n eman zitzaion behin betiko onespena, eta 2016ko maiatzaren 27an hartu zuen indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespena argitaratu ondoren.

Egin den berrikuspenaren ondorioak ondoko alderdi hauek dira:

- a) Aurrekontuari 2015eko abenduaren 31 eta gero eman zitzaion behin betiko onespena.
- b) Ez dira egiten aurrekonturako betetze-oinarriak<sup>1</sup> eta ez da dokumentazio osagarria osatzen, ez eta araudian exigitutako eranskinak ere.
- c) Aurrekontuaren betetzean, zenbait aurrekontu-partidaren hasierako kreditua gainditu da, guztira 1.925 euroko kopuruan, araudian exigitzen diren nahitaezko aurrekontu-aldaketak izapidetu gabe.
  - Aurrekontuz kanpoko zordunen eta hartzekodunen kontuek, 2009ko ekitalditik, 5.131,38 euroko zenbateko garbia egiten duten saldoak ematen dituzte<sup>2</sup>.
  - Udalak ez du haien ondasunen inbentariarik egin. Halaber, Udalak ez du lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eratu.
  - Udalak erabili ohi dituen kontu korronteek banakako xedapeneko sinaduren bitartez funtzionatzen dute.
  - Ekitaldian zehar, 16 administrazio-errekurtso izapidetu dira guztira.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontua behin betiko onestea eta argitaratzea legedi indardunean aurreikusitako epean, eta aurrekontuaren espedientean eskatutako dokumentu guztiak sartzea.*
- *Lege-esparruan exigitzen diren aurrekontu-aldaketak onestea, aurrekontu-betetzearen gaineko kontrol egokia egiteko.*
- *Kontu orokorraren espedientean sartzea, oro har, exigitzen diren dokumentu guztiak.*
- *Aurrekontu-egonkortasunaren betebeharren betetzea aztertzea, kasua bada egoki diren neurri zuzentzaileak hartzeko.*
- *Tresna informatiko bat garatzea, zeinak bideratuko baitu hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak lortzea, eta ordainketen batez besteko epeak argitaratzea legez exigitzen den moduan.*
- *Aurrekontuz kanpoko saldoak berrikustea eta erregularizatzea, kasua bada, halako moduz non soilik islatuko baitituzte egiazki kobratzeke eta ordaintzeko daudenak.*
- *Ondasun guztien inbentario bat egitea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haien etengabeko gaurkotzea eta ibilgetuarekiko konexioa ahalbidetuko duena, zeinean balantzea agertu beharko baita.*

<sup>1</sup> 2/1995 Foru Legearen 196.1 artikuluan aukerakotzat jasotzen da aurrekontuen betetze-oinarriak jasotzea.

<sup>2</sup> Zordunek 2.050 euro egiten dute, eta hartzekodunek, berriz, 7.181,38 euro.

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistro bat osatzea, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezartzen dituen ezaugarriekin; foru dekretu horren bidez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hiri-gintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten da.*

- *Kontu korranteetako funtsak erabiltzeko araubidea erregularizatzea, haietan sinadura man-komunatuak erabil dadin.*

#### IV.4. LANGILEAK

Langile-gastuek 117.300 euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 99koa izan da. 2016ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 29 dira.

Hona kontuak banakatuta, 2015ekoekin alderatuta:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
Goi-karguak	15.951	14.794	-7
Funtzionarioak	29.359	28.007	-5
Lan-kontratudun langileak	44.030	42.150	-4
Gizarte-zamak	33.232	32.349	-3
<b>Guztira</b>	<b>122.572</b>	<b>117.300</b>	<b>-4</b>

Kapitulu honetako gastuak ehuneko lau egin du behera, nahiz eta ehuneko bateko soldata-igoera aplikatu den, zeren eta 2015eko ekitaldian jaso baita 2012an langile publikoei kendutako aparteko soldata ordaintzearen gastua.

2016ko plantilla organikoak bi lanpostu ditu guztira (horietako bat, idazkari eta kontu-hartzailearena, Atezko Udalarekin partekatzen duena), eta Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 11n eman zion behin betiko onespena. 2016ko maiatzaren 30eko NAO n argitaratu zen. Onespena, horrenbestez, legez ezarritako epeaz kanpo eman zitzaion.

Plantilla organikoko lanpostuen egoera honako hau da 2016ko abenduaren 31n:

Lanpostua	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Ofizial administraria	1	1	0	0
Idazkaria-kontu-hartzailea	1	1	1	1
<b>Guztira</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>1</b>

Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua gaur egun administrazio-kontratu baten bitartez beteta dago.

Langileen gastuen lagin baten gainean egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, zuzen kontabilizatuta daudela, ordaindutako lansariak betetzen den lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipenak zuzenak direla; hona hemen salbuespenak:

- Plantilla organikoan, ez da gaurkorik agertzen udalaren bi langilek jasotzen duten lanpostu-osagarriaren portzentaje osoa, zeina jasotzen baitute martxoaren 17ko 19/2008 Foru Dekretua aplikatzen hasi zenetik; izan ere, foru dekretu horren bidez funtzionarioen ordainsari osagarriak egokitzen dira<sup>3</sup>

- Udal langileek<sup>4</sup> sei hilez behin zenbateko finko batzuk jasotzen dituzte, Udalaren kudeaketak egiteko joan-etorrietan izaten dituzten gastuengatik. Urteko zenbatekoa bateratua 2.060 eurokoa da. Dieta horiek egiazki egindako joan-etorrien eta gastuen arabera kalkulatu beharko lirake. Aurkeztutako alegazioen arabera, 2018ko maiatzaren 25eko Alkatetzaren Ebazpena jaso-

<sup>3</sup> 41. NAO, 2008ko martxoaren 31koa.

<sup>4</sup> Idazkari eta kontu-hartzailea eta administrari ofiziala

tzen da, zeinean, bigarren apartatuan, ezartzen baita dieten ordainketa egiazki justifikatutako joan-etorrien eta garraio-gastuen arabera eginen dela.

Ikusi da ezen, egin eta aurkeztu diren hiruhileko ordainketa-gutunetan egoki atxiki eta ordaindu diren arren, 2016ko ekitaldiko 190. ereduan ez dela sartu profesional independenteen PFEZaren eragiketei eta ordainketei buruzko informazioa.

Halaber, aldi baterako kontratazioen lagin bat aztertu dugu, eta ondorioa da legeria indardunaren arabera direla.

Gure gomendioak:

- *Udalaren plantilla organikoa onestea legez ezarritako epeetan.*
- *Plantilla organikoa aldatzea, lanpostu-osagarria 19/2008 Foru Dekretuaren arabera jasotzen duten Udalaren bi langileren osagarria egokitzeko.*
- *Aurrera eramaten dituzten udal kudeaketetan langileek egiten dituzten gastuak justifikatzeko prozedura bat garatzea, halako moduz non egiazki egindako gastuetan oinarritutako likidazioa eginen baitute.*
- *190. ereduan erregelamenduz exigitzen den informazio guztia jasotzea.*

## IV.5. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 112.823 euroak izan ziren; haien betetze-maila aurreikusitako kredituaren ehuneko 90ekoa izan da, eta ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 28 egiten du. 2015. urtearen aldean, ehuneko 15 egin du behera.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Aholkularitza juridikoa	18.211	18.696	3
Ludotekaren kudeaketa	12.849	12.609	-2
Hirigintzako teknikariaren aholkua	18.067	10.871	-40
Erakinen mantentzea eta garbiketa	10.445	9.788	-6
Katastroaren mantentzea	5.428	7.506	38
Txulapaingo jaiak	5.611	5.322	-5
Besterik	61.699	48.031	-22
<b>Guztira</b>	<b>132.310</b>	<b>112.823</b>	<b>-15</b>

2016ko ekitaldian ez da inolako kontratazio-prozedurarik egin; halere, ludotekaren kudeaketa dela-eta 2015ean egindako kontratazio-espedita berrikusi dugu, eta ondorioa da oro har kontratazioaren arloko legeria indarduna bete dela.

Halaber, kapitulu honetako gastuen lagin bat berrikusi da, eta egiaztatu da haiek beren fakturerekin justifikatuta daudela eta zuzen kontabilizatu direla.

Halere, muntako zenbatekoak dituzten honako zerbitzu hauek detektatu dira, kontraturik ez dutenak:

Azalpena	2016ko gastuaren zenbatekoa
Aholkularitza juridikoa	17.045
Udal bulegoen garbiketa	9.788
<b>Guztira</b>	<b>26.833</b>

*Gure gomendioa da kasuko kontratazio-espeditaak izapidetzea kontratu-araudian hala ezartzen denean, dela zerbitzuen zenbatekoarengatik, dela aurreikusita dagoen indarraldi-epea gainditzen delako.*



## IV.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Izaera horretako gastuek 33.098 euro egin dute 2016an, eta ehuneko 83ko betetze-maila izan dute. Guztizko gastuaren ehuneko zortzi dira. Gastu horiek ehuneko 14 jaitsi dira 2015eko ekitaldikoekin alderatuta.

Honako hauek dira 2016ko gastuaren xehetasunak eta 2015eko ekitaldiko gastuekiko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	2016/2015
Nafarroako Foru Komunitateari	3.345	3.600	8
Toki entitateei	26.651	26.228	-2
Enpresa pribatuei	2.031	1.444	-29
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	6.355	1.826	-71
<b>Transferentzia arruntak guztira</b>	<b>38.382</b>	<b>33.098</b>	<b>-14</b>

Kapitulu honetako jaitsieraren arrazoiak bi dira, funtsean: familiei ematen zaizkien haur eskolarako laguntzen bolumena jaitsi dela, eta kontzejuei itzulitako EIOZaren ehuneko 10 itzuli zaiela.

Transferentzia garrantzitsuenak kontzejuei honako hauek itzultzerakoan egin dira: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen ehuneko 50 —15,3 mila euro— eta eraikuntzen eta obra-instalazioen gaineko ehuneko 10 —0,6 mila euro—; eta mankomunitateari oinarrizko gizarte zerbitzuen kuotarako ekarpena —10,3 mila euro— itzultzerakoan.

Udalak ez du diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik.

Berez mankomunitatuta dauden zerbitzuetarako transferentziaz gainera, Udalak kontzejuei itzulitako zergak berrikusi dira. Oro har, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen ehuneko 50ren itzulketa Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakien bitartez gauzatu eta erregistratu da. Eraikuntzen eta obra-instalazioen gaineko zergen ehuneko 10aren itzulketari dagokionez berriz, esan beharra daukagu hori kontzejuekin lortutako hitzezko akordioetan oinarritu direla, eta ez dagoela haiek justifikatzeko inongo erabakirik.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor bat onestea.*
- *Behar diren erabaki formalak hartzea kontzejuei itzulitako EIOZaren kopuruak justifikatzeko.*

## IV.7. INBERTSIOAK

Inbertsio-gastuak 135.255 eurokoak izan dira, ehuneko 83ko betetze-portzentajearekin: ehuneko 611 handitu dira 2015ekoekin alderatuta.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan gastu aipagarrienak:

Azalpena	2016ko gastuaren zenbatekoa
Txulapaingo goi-horniduraren V. fasea	117.427
Hirigintzako udal planaren % 20	13.698
Besterik	4.130
<b>Guztira</b>	<b>135.255</b>

Goi-hornidurarako obraren gastuen itzulketa berrikusi dugu. Kontratazio-espeditentearen kudeaketa Iruñerriko Mankomunitateak egin du, bera izan baita Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegituren Planetik dagokion finantzaketa jaso duen udal entitatea. Obra horren guztizko kostua 497.069 eurokoa izan da, eta hartarako 379.642 euroko diru-laguntza jaso da; aldea, 117.427 euro, Udalak finantzatu du, inbertsioen 6. kapituluan ageri den aurrekontu-inputazioan ageri den bezala.

Halaber, hirigintzako udal planaren idazketarengatik lansarien zenbatekoa berrikusi dugu. Udalak kudeatu du hori eta 2004an adjudikatu da. Ordainketetarako araubidearen kontratu-baldintzetan ageri den bezala, amaierako ehuneko 20ko ordainketa planaren behin-behineko onespeneraren unean egin behar zen; 2016an gertatu zen hori.

Bi kasuetan egiaztatu da ordainketa euskarri-dokumentazioarekin zuzen justifikatuta dagoela, zuzen kontabilizatuta dagoela, kontabilitate-araudia bete dela eta, udal planaren idazketaren kasuan, adjudikazioan onetsitako aurrekontua bete dela.

2016ko ekitaldian Udalak ez du obra-adjudikaziorik egin.

Egindako azterketan, honako hauek ikusi ditugu:

- Inbertsioengatikoko gastuak ez dira jasotzen egoerari buruzko balantzeko ibilgetuaren atalean.
- Bestetik, instalazioaren titulartasuna Mankomunitateari dagokion neurrian<sup>5</sup>, aurrekontu-egozpen egokia kapital-transferentzien 7. kapituluaren egin behar zen, eta ez inbertsio errealean 6. kapituluaren.

Gure gomendioak:

- *Egoerari buruzko balantzeko ibilgetuaren atalean erregistratzea inbertsio-gastu guztiak.*
- *Aurrekontuan, kapital-transferentzien kapituluaren egoztea hirugarren baten titulartasunekoak diren tokiko inbertsioak.*

#### IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldearen ehunekoak 2016/2015
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	91.522	90.855	-1
2. Zeharkako zergak	14.150	7.527	-47
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	15.391	10.346	-33
4. Transferentzia arruntak	154.343	159.823	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	19.468	11.296	-42
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>294.873</b>	<b>279.847</b>	<b>-5</b>
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	12.608	16.200	28
<b>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</b>	<b>12.608</b>	<b>16.200</b>	<b>28</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>307.481</b>	<b>296.047</b>	<b>-4</b>

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 296.047 eurokoak izan dira, eta ia guztiz diru-sarrera arruntei dagozkie. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 66koa izan da, eta kapitulu guztietan aurrekontuetan jasotakoak baino handiagoak edo haien hurbilekoak izan dira, bi kasu hauetan izan ezik: zeharkako zergak —ehuneko 42ko betetzea izan dute— eta pasibo finantzarioak —aurrekontuan 145.300 euroko mailegu baten bidezko finantzaketa jaso da, baina azkenean ez da mailegurik hartu—. 2015. urtearen aldean, diru-sarrerak ehuneko lau egin dute behera.

a) Zergen bidezko diru-sarrerak

<sup>5</sup> Sarearen titulartasunaren lagapena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren 248/2015 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen, eta Iruñerriko Mankomunitatea eskubide eta betebeharretan subrogatu zen, horixe baitzen obra kudeatzeko eta tokiko azpiegituren planeko kasuko finantzaketa jasotzeko baldintza.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	2016/2015
Lurraren kontribuzioa	44.138	44.385	1
Ibilgailuak	39.017	38.643	-1
Lurren balio-gehikuntza	642	81	-87
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	7.726	7.747	0
EIOZa	14.150	7.527	-47
<b>Guztira</b>	<b>105.672</b>	<b>98.383</b>	<b>-7</b>

Alde garrantzitsuenak, termino erlatiboetan zein absolutuetan, EIOZaren likidazioan ikusten dira, obretarako eskaera-espeditenteen bolumenak izan duen jaitsieraren ondorioz; gainerako zergen likidazioa bere horretan mantentzen da ia osorik, lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kasuan izan ezik, horretan izan den aldea, termino absolutuetan, ez baita aipagarria izan.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Landa-lurraren kontribuzioa	0,426	0,10 - 0,50
Lurraren kontribuzioa	0,173	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2 eta 2,2 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	8	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	3,5	2 - 5

Tasa horiek 2015eko tasen antzekoak dira.

Azkeneko balorazio-ponentzia 2003. urtean egin zen. 2017ko ekitaldian, Udalak gaurkotzeko lanak hasi ditu. 2018an amaitzea espero da. Horrenbestez, Udalak hiri-lurren kontribuzioari eta landa-lurren kontribuzioari aplikatzen aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du.

Zergen bidezko diru-sarreraren aurrekontuko partiden lagin baten gainean egindako azterketan, egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea egokiak izan direla, EIOZaren kasuan izan ezik; izan ere zerga hori zergadunak aurkeztutako hasierako aurrekontuaren arabera ordainarazten da, eta eraikuntza-proiektuekin lotutako obren kasua kenduta, ez da obra-amaierako zenbatekoaren arabera doitzen.

Gure gomendioak:

- *Hasitako balorazio-ponentziako gaurkotze-lanak amaitzea eta gero landa-kontribuzioa eta hiri-kontribuzioa ordainarazteko tasa bakarra aplikatzea, legeria indardunean ezarritakoari jarraituz.*

- *EIOZa kasu guztietan likidatzea obraren amaierako betetze erreala kontuan hartuta.*

b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.

Ondoren 2016ko eta 2015eko tasen prezioen eta beste diru-sarrera batzuen bitarteko diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu:

Tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa 2016/2015
	2015	2016	
Aprobetxamendu bereziak	1.155	1.189	3
Uraren kontsumo-tasa	1.840	1.154	-37
Premiamendu-errekarguak	1.254	1.104	-12
Bestelako diru-sarrerak	11.142	6.900	-38
<b>Guztira</b>	<b>15.391</b>	<b>10.347</b>	<b>-33</b>

Kontzeptu nagusiak aprobetxamendu berezien, ur-kontsumoarengatik tasen eta premia-mendu-errekarguen bidezko diru-sarrerak dira. Gainera, ekitaldian jasotako beste diru-sarrera batzuk jasotzen dira, zeinak honako hauetatik iritsi baitira: exekuzio subsidiarioak, ibarreko jaiak eta zenbateko txikiagoa duten beste batzuk. Horiek dira kapitulu honen likidazioaren gertatutako jaitsieraren arrazoia

Aprobetxamendu bereziengatik tasak berrikusi ditugu, eta egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea araudiaren arabekoak izan direla.

c) Transferentzien bidezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko transferentzien bidezko diru-sarrerak alderatuta, honako hau da emaitza:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aitorturiko eskubideak 2016/2015
	2015	2015	
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	118.512	120.764	2
Udalbatzako kideen ordainsariak:	11.802	15.895	35
Beste diru-laguntza batzuk	6.372	6.335	-1
<i>Guztizkoa atal honetan (Nafarroako Gobernua)</i>	<i>136.686</i>	<i>142.994</i>	<i>5</i>
Estatuarena	480	403	-16
Toki entitateenak eta beste batzuenak	17.177	16.426	-4
<i>Beste hainbat entitate, honaino, guztira</i>	<i>17.657</i>	<i>16.829</i>	<i>-5</i>
<b>4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>154.343</b>	<b>159.823</b>	<b>4</b>
Nafarroako Gobernua	12.608	16.200	28
<b>7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>12.608</b>	<b>16.200</b>	<b>28</b>

Diru-sarrera horien igoeraren arrazoia, funtsean, Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzien igoera izan da, bereziki, zinegotzientzako lansariekin lotutako kasuan eta Toki Ogasunen Partaidetza Funtzari dagokionaren kasuan.

Hala eta guztiz ere, egindako azterketan ikusi dugu ezen, kapital-transferentzien kapitulan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntzak jaso direla, 4.500 euro egiten dutenak; izan ere, diru-laguntza horiek transferentzia arruntan 4. kapitulari egotzi behar zitzaizkion.

*Gure gomendioa da beste administrazio publiko batzuetatik jasotako laguntzak eta diru-laguntzak egoki egozte, haien egiazko izaera ekonomikoaren arabera.*

## d) Ondarezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko ondarezko diru-sarreraren osaketaren xehetasunak honako hauek dira:

Ondarezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Usategien aprobetxamendua	3.433	4.678	36
Kontzejuetako herri-lurren aprobetxamenduak	4.545	4.186	-8
Ehiza-barrutiaren aprobetxamendua	1.463	1.463	0
Fazeriako egur-aprobetxamenduak	7.842	415	-95
Banketxeetako kontuen korrituak	2.184	554	-75
<b>Guztira</b>	<b>19.468</b>	<b>11.296</b>	<b>-42</b>

Kapitulu honetako jaitsieraren arrazoiak bi dira, nagusiki: egur-aprobetxamenduetatik heldu diren diru-sarrerak jaitsi izana eta banku-entitate batean irekita daukan ordainpeko kontuan Udalak eskuratutako interesak.

Herri-larretako eta herri-basoetako aprobetxamenduekin lortutako diru-sarrerak berrikusi ditugu, eta egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea araudiaren araberrakoak izan direla.

## e) Itxitako ekitaldietako diru-sarreraren aurrekontuak.

Hurrengo taulan ekitaldien araberrako bilakaera erakusten dugu:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko ko- brantzak	Kaudimen gabe- ziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoa- ren gaineko ko- brantzen %
2015	23.716	20.381	-44	3.379	6	86
2014	3.164	766	0	2.398	4	24
2013	5.355	511	0	4.844	9	10
2012	16.869	304	0	16.565	31	2
2011	1.395	362	0	1.033	2	26
2010	830	245	0	586	1	29
2009a eta au- rrekoak	24.956	70	0	24.885	46	0
<b>Guztira</b>	<b>76.285</b>	<b>22.639</b>	<b>-44</b>	<b>53.690</b>	<b>100</b>	<b>30</b>

2016ko abenduaren 31n kobratzeke dauden saldoen artean, besteak beste, EIOZaren zenbaterko batzuk ageri dira: 2012an igorritako 14.619 euro eta 2013an igorritako 3.540 mila euro dira, azkenean egin ez ziren obrei dagozkienak. Diru-sarrera horren aitortpena ezereztatu gabe dago.

Udalak kontratatua du betetzeko egoeran dauden diru-sarrera guztien kobrantzarako laguntza-zerbitzua. Kontratutako enpresak 2016ko abenduaren 31n emandako xehetasunei erreparatuta, kobrantzarako jarduketak egiten ari direneko diru-sarreraren guztizko zenbatekoa 11.724 eurokoa da; Udalak, ordea, itxitako ekitaldietatik kobratzeko daukan saldo moduan 53.690 euro dauzka.

Gure gomendioak:

- *Berrikustea itxitako ekitaldietako diru-sarreraren saldoak, laguntza kontratuan sartuta ez daudenak, haien jatorria ezagutu eta behar diren jarduketak egiteko.*
- *Beren antzintasuna dela eta, kobraezintzat behin betiko jo diren saldoak desagerraraztea.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko ekainaren 1ean  
Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

## **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Txulapaingo Udaleko alkate Pablo Rota Arrieta jaunak

**AZALTZEN DU:**

Kontuen Ganberak Txulapaingo Udalari buruz egindako behin-behineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa, ikusita,

**EBATZI DUT:**

Lehenengo.- Txulapaingo Udaleko langileei dietak ordaintzeko sistema ordainsarien sistema oso zaharra da, eta hura ezartzearen arrazoia izan zen udalerrria oso zabala dela eta udal barrutian barreiatuta dauden toki entitate txiki ugari osaturik dagoela. Ordainsarien sistema hori ezarri zen langileek izaten dituzten gastuak partzialki ordaintzeko, lan-arrazoiak tarteko departamentu eta erakundeetara joan behar izaten baitira bilerak eta izapideak egitera.

Horrek berekin dakar bidaia ugari egin behar izatea erakunde publiko zein pribatuetara eta Nafarroako Gobernura.

Bigarrena.- Kontuen Ganberaren txostena ikusita, aurrerantzean egiazki justifikatutako joan-etorriengatik eta garraio-gastuengatik dietak ordainduko dira.

Txulapainen, 2018ko maiatzaren 25ean

## **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Txulapaingo Udaleko alkateari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2018ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga



